

Neguairen gerriyan.

II

Senar-emazteak deabruzko izketa ori ziarduela, Laurentzi mutill koskorra, bat batetan jeiki zan zerbait igarri balu lez, eta bere arrebatxo eskutik elduta, jetxi dira beruntz.

—¿Nora guaz Laurentzi?

—Ogi billa.

Ogiaren izenak poz eman ziyon Kandidetxo-ri.

—¿Nun billatuko ote degu ogia?

—Billatu arte guziyan ibilli egingo gera.

Eta ume biyak, bi edo iru kale zarkiñetan baizik ibilli izan etziran neskaño-mutikoak, karrika zabal apaiñetan aurrera dijuaz aruntz onuntz dabilen oste (jende) tartetik. Andare ta pitxi ederrak badakuskite berin apaletan, bañan erosteko dirurik ez.

—¿Oroitxen al zera, Kandidate, aitak lan egiten zunean, nola erosi zigun biontzako pelota?

Kandidate etzan oroitzen. Pelota erosi zitzyela, urte bete bazan ta pelota aintziña urratu zuten. Urtea berriz umeentzat aldi luzegiya da errez oroitzeke.

—¡Guazen etxera emendik, elur bisutsek aurpegiya jotzen dit eta!

—¡Etxean ogirik ez dago ordea, Kandidate!.....

Juan da juañ, urrutira iritxi ziran, iñoiz eldu etsiran karriketara, ta batekorik bestera begira daudela, ikusi dute etxe aundi bat, atea zabal zabalik, argiz diztiatua, ostez iya betea, abesti gozoen ota ateratzen zala. Geigo ere sartzen diran leku artara, gure ume oek ere giro epela sumatu dioe, ta sartu dira barrena.

—¿Eliza izan bear luke au?

—Bai, Kandidate, amak batzutan aitutzen zigun bezelako eliza izango da.

—Gu lez gaizki jantziyak ere badaude emen. ¡Zenbat andra ta gizon dagon! ¡Emen giro da! ¡Ze ederra arako *papel* zuri borobilla erdiñ daukan urrezko ontzi ura!

—Beste guziyak belauniko daude ta jarri gaitezen gu ere.

—¡Ori lora ederrez, orko argizari makilla galantak!

Eliz aurre guziya aratz (brillante) bai dago.

Eliz ganbaran berriz guzizko abesti leunak, eztitsuak, alaigarriyak ari dira.

Itxaroponezko abotsak, pozezko itzak entzuten dira.

Gure ume kondoak ez dute beñere alako edertasunik nabaitu ta txundituta, arri ta zur egiñak daude.

Biotza astintzerañoko poza ta atsegiña, zentzuzkiten (entzun zituzten) abesti onen itzak zemayen (eman zien):

Jesusek maite ditu
Txiro beartsubak
Jateko ogirik ez
Duten gizajuak.
Betoz, arren, nigana
Naigabetuak
Ogiz beteko diztet
Beren eskubak.

—Errebe (bakalduna) edo biziko da emen, onelako etxe dotorean! Jesus izango da noski errege ori, ogiya txiro-beartsubai emango diela abestu (kantau) due ta!

—¿Ogiya eskatuko aldegu ba, Kandidate?

Kandidate neskatxoak etzitun entzun itz oek eliztiarrak aulki otsez atera zuten zarabak galerazi zuan da.

Une artanxe eletariya (mintzalariya) agertu zan iztegián, Laurentzik esan zuan letz, eta asi zan itz egiñean. Jesus-ek maite zitula beartsu-txiroak. Bera ere Jaungoiko zalarik beartsu jayo zala ta. Jesus-ek beti bere ondoren zitula urgun (erren), itxu, legenadun (lepradun) ta beste edozer erako beartsuak, Palestina-n ibilli zanean. Gose ziran gizataldeari jaten eman ziela Jesus-ek: Jesus-i eskatzeko bear zan guziya, ta abar.....

Gure neska-mutillek etzuten asko aditzen edo ulertzen, bañan ogiya emango ziola Jesus-ek eskatzen zionari, goguan artu zuten.

—Esan dizut Laurentzi, Jesus ori erregeren bat izango da guziari ogiya ta edozer agintzeko.

Apaiak itzaldiya amaitu, bukatu zuanian, *Pater nosterrak* jaulkitzen asi zan:

«Donokietan zauden gure Aita: zure izena donetsi bedi, zure ala belkigu, zure naya egin bedi donokiyen lez, ludian ere.»

Eta oste guziyak bat batera erantzun zuan:

«*Emaiguzu gaur ere gure egunoroko ogiya*; arketsi guri geren zorrak guk ere geren zordunena dazkezotegun lez, eta ziltzaldiyan ez gaitzazu utzi gaitzetik begira baizik. Orixe.»

Otoitz ontako itzik gozoenak «*emaiguzu gaur ere gure egunoroko ogiya*» itzan ziran ume oentzat, bai goguan artutakuak ere.

Laurentzik, Kandidate bere arreatxoari eskutik elduta zesayon poza-
ren pozez: ¡begira, ogi puzkaren bat izango da guretzat ere, oste gu-
ziya ogi eske ari da ta!

Elizkizuna amaitu dalarik, ostea naro naro ateruntz dijoa, eta gure
Laurentzi ogi gosea, ezertanta geratzen da osteak alde egin da, argiyak
emendatzen ditustenian.

Bakarrik geratu diralarik oindi (altar) aldera dijuaz, eta guziya ate-
maten (examinar), miatzen dabiltz. ¡Ayek ziran ba gauza arrayak! (re-
luciente). ¡Urrea ta zillarra diz diz zegitela ikusten zuten guziya! Oyen
etxean etzan alako edergarririk. Guziya ikusi ta guziya ikutu elizan dabil-
tzela, aldamen batean billatu due Jesus jayo berriaren iduri polita, erdi
parrez, belar lastozko aska txukunean dagola, argiz ta loraz ingurutua.

—¡Au izango da emengo Jesus errege ogi emaillea! — esan zion
Laurentzi-k Kandidate-ri.

Areztian ostea belauniko jartzen ikusi zuten bezela, belaunikatzen
dira anai-arrebak Jesus aurtxoaran aurrean, ta esaten dioe biyak batera:

«*Emaiguzu, gaur, gure egunoroko ogiya.*»

Jesus parrez da ixillik datza ordea, lastozko oitxoan, ta birretan as-
ten dira, ots aundigoan:

«¡*Emaiguzu ogiya!*»

Bañan, Jesus-ek jaramonik (casorik) ez dagie.

Orduban, negarti xamar asten die umeak, deadarka ta karraxika,
ots aundian, elizako ixiltasun guziya urratzeraño:

«¡*Emaiguzu ogiya, ogiya nai degu!!*»

Jesus-ek ogiya ematen zula, entzun zuen itzaldiyan, ta zai zeuden
Jesus-ek ze itz egingo.

Ots oyetara eliz-gelan (sacristian) zegoan eletariya (sermolariya) irten da, ta ume biyak deadarka ari diran tokira dijua.

Txillioka ari ziran ogi eske Jesus-i, ta apaizak Laurentzi-ri bizka-rrean ukuitu arte, etziran konortatu iñor zetorkienik ere.

—¿Ogiya nai aldezue, umetxuak?, galdetzen die apaizak. Eta ika-raturik begirutzen dute umeak apaiza, bañan onek agudo igarri die ze ume izan leizken Laurentzi ta Kandidate. Goseak erkindu ta elizara iñoiz bear bada etorri gabe bizi diran aurrak.

—Etzaitzete ikaratu, dasaye apaizak, Jesus ona data, ni aren jopu-serbitzaria (ministrao). Atozte nerekin, ogiya emango dizuet eta.

Umeak antz eman dioe apaizari aurpegian urena (honrado) dala, ta badijuazkela arekin. Eskar eskubitan artuta damazki apaizak bere etxera gure umeak txinginean.

(Jarraituko da.)

FELIPE AYERBE



Neguaren gerriyan.

III

Apaiza asten zaye galdezka etxean, ta laister ezagutu du ume ayek Jaungoikoaren lurriñik ere aditu ezdutela iñoiz. ¿Nolatan etorri zerate elizaraño?

—Laurentzik: ¡Ara, etxe aundi ta eder ori ikusi degunean, bildur giñen sartzen, besteak ere sartzen ziran ordea ta, gero guziyak ogi eske elizan asi ziranean, gu ere goseek geunden da antxe gerau gera!.....

—Apaizak: Ikusten dezute ba Jesus-ek nere bitartez ogiya ta eman-go dizkitzuela. Jesus-ek maite ditu aurrak, beartsuak, eta eskaleai bear dutena ematen die. ¿Amak ez aldizute aitatzen Jesus-en izenik?

—Laurentzik: Aita asarratzen danean, esaten ditu ¡Kristo ta ostia! ta olakoak.

—Kandidek: Nik lagun bati aditu izan diot Jesus ona dala ta....

—Laurentzik: Amak jakin balu Jesus-ek ogiya ematen dula, eskatuko zion ba guretzak. Aita besoa autsita daukagu ta, otordu aundirik egun oetan ez degu egin, surik ere ez piztu, ta gu, otsak eta goseek. Aita ta ama izketan gogor diarduela, alde egin diegu guk ogi billa, gose goseek geunden da.....

—Apaizak agindu dio bere neskame zarrari alik laisterren ekartzeko ume ayentzat katillu aundi bana esne, ta apaizak bere eskuz ogi zukue (sopa) eginda, jateko esan die umeai.

Jaten ari diran bitartean, dasaye:

—Aurreneko aldiz Jesus-i eskatu diozue ogiya ta Jaungoikuan entzun ditu zuen arren-otoitzak. Eskarrak egin Jesus-i maite zaituztelako, ta zuek ere gaurdanik maite maite izan bear dezute Jesus-Jaungoikoa.

Gaiñera, neska mutillak esne sopak jan da jan ari ziran bitartean, otarratxo edo saskitxo batean jarri zizten ogi bi oso, arrautsak eta bon-billa bat ardo, aginduaz:

—Onoko esku-saskitxo au eramayezute ait-amari, ta esan Jesus-en emaitza dala, ta agurtzera juango naizela zuen etxera..... biar bertan apika....; nun bizi zeraten esan bear diazute orain..... Zuazte ba etxera

lenbailen, gurasoak zuen zai egongo dira onuzkero ta. Kaletan jez gero galdu!

—Kandidek: Ez gera galduko. Aurrena kale eder batean zuzen etorri gera, okertu gero kale estu ta aldapatsura ta..... laister gu bizi geran uriki bazterra dago.

Etternutzean umeak pozik eta bizkor zijuazten, beatz txuntxurretan aisa zeramatala anoi (ración) otarratxo. Izketan berriz iturriya bezela, ¡ayek ikusi zituzten ikustekoak! ¡bai apaiz ona onenbeste gauza eman ziena ta oraindik emango ziztenak!.....

—Kandidek: ¡Gure ait-amak artuko dute poz ona saskitxo au ikustean!..... Eta albista edo izper onak lenago eramateatik, elur patsetan zipi zapa zijuazten ipur-saltoka.....

.

Atxurin Z***, kalean bizi ziran Lauran ta Gentzane espatzen (kejazten) asi dira umeraz.

—¿Noraño jua ote zaizkigu ume kondo oyek? ¡Bakarrik irtetzen diranetan, garaizago itzuli oi dira ba!..... Umeen arreta onek aartu azi zizten zebiltzkien asmo beltzak.

—Gizonak: Laister ezpadatoz, irten egingo naiz umeen billa, ta zu zaude etxean etortzen balirake ere.

Une artantxe, neska mutikoen urrats (pauso) zalaparta entzun zan zurgutan (eskillaratan) goruntz. Ama eser lekutik jakitzerako, atea bultzauta sukaldean ziran jemen gera, ama! esanaz.

—¡Zorioneko adiña! ¡Gure elorrien aazgarri errugabeok zuek zerate!

—¡Ona emen ogiya, arrautzak eta..... zuentzat!.....

Laurentzik laga du mai gainean anoi-saskitxo, ta Kandidek urduri urduri iriki du bere eskutxo bat banaka ateratzen ditula barruko jakiyak.

Saskitxo ondoan idoro (billau) dute ingi (papel) bildu zorroa. Aitak artu du eskubetan ingi-bildu ori. Ogerleko zuri ederra zeukan barruan.

Gurasoak ezin sinisturik zeuden zekusatena:

—¿Zeñek eman dizkizute onelako emaitzak?

—¡Jesus-ek, ama! Elizan izan gera ta Jesus-i eskatu diogu ogiya, ta lengo egunean kalean topo egin genduan gizon beltz ura bezelakoak bere etxera eraman gaitu. Eta biar agiyan gure etxera etorriko dala esandigu.

¡Amalau zanko! eskerrera egiratubaz (bueltatubaz) zoli zoli esan zuan Lauran-ek ¡Gure etxean apaiza! ¡ori beargendukek! Argintza lagunek txakurkeriyak esaten zetie apaisen kaltez alperrak, gezurzaleak, zikoitzak dirala ta, txiro-beartsubei jaramonik ez dietela egiten da.....

—Gentzane: Esanak aditu, ikusiyak sinistu. Badakusgu ba guk uste gendunetik bestelako apaizak ere badirala.

—Guk ezdiogu gizon beltzari ezer eskatu, baño elizan oste guziyak ots aundian ogiya eskatzen zuten. «Emaiguzu gaur gure egunoroko ogiya», itz oek goguan artu ditugu, eta gero Jesus-aurraren ondoan belauniko jarrita itz oyek askotan esan dizkiogu. Apaiza etorrita, leundubaz eskutik etxera eraman gaitu; onak esanegiñekoak eta ikasleak izateko agindubaz.

Ait-amak oso bigunduta zeuden gertatzen zitzenaz. Lauran-ek zerbait oroitzen balu bezela «emaiguzu gaur gure egunoroko ogiya», itzak esaten ditu.

—¡A bai, neuk ere umetan ikasi nitun olako itzak! ¡Ainbeste urte dira esan ezdituala-re! ¡Enuke asmauko ere! «Donokietan zauden gure Ait a.....».

—Aurrak: ¡Bai, bai, olaxen asten ziran Elizan ere.....

—Lauran: «Donetsia izan bedi zure izena» Geigo enaiz oroitzen, bañan bai garai batean nik ere pozik bizi nitzan aurzaroen (umetan) esaten nula orrelako otoi-tza.

Eta Lauran-en adimena bitartean askatzen zijoan, argitzen, sendatzen..... bastarreatzen ames gaiztoak....

—«Emaiguzu gaur gure egunoroko ogiya», etzaizkit inoiz itz oek aaztuko. Zuek ere ez aaztu ¿e?

—Kandidek: Ama, biar apaiza etortzen bada, «Donokietan zauden gure Aita» irakasteko guri esango diogu ¿e?

Sendiaren (pamiliaren) biotzak itxaropen izpiriz goratzen asi ziran gau artan, ta oiratzekoan «emaiguzu gaur gure egunoroko ogiya» mingañetan zutela loak artu zituan.

Lauran-ek etzuan geroz aitatzen eriotzik. Ezagutzen asi bai zan gizonen etxipen gaiñetik dagola Jaungoikuaren begi zuriya..... ta erru-kiya eskatzen dionari, ezdiola beñere ukatzen.

Neguairen gerriyan.

IV

Urrengo egun abarrean pozik jeiki ziran oetik Laurentzi ta Kandidate, zekiten otoi laburra esaten ere bai laister asi: «Emaiguzu gaur gure egunoroko ogiya». Kandidatek zesanez elizako gizon beltza etorriko zitzaizayen da.

Lauran-ek etzuan uste apaizik aren etxeraño juango zanik. «Agian apika edo zeordubait» etorriko zala esan omenzuan da, umeak poztutzeko onenian, esango zien.

Amator izena zuan apaiza etzan ordea aartu umezaz, eta beren gurasoezaz batez ere Jaungoikoarentzat irabazteko anima ondatuak zirala baizerizkion.

Urren eguneko ordubietan Amator apaizak jotzen du ixill xamar Lauran ta Gentzane bizi ziran oiñeko (pisuko) atea. Senar emazteak larri larri dijoaz atera.

—Jauna, aurreneko aldiz bitza ontara sartzen da apaiza. ¡Ongi etorriya eriotz-etxipenetik atera gaitun jaun ona!

Eta gorputz eragin batez, Lauren-ek erakusten dio apaizari besoa luzatuaz, itotzeko asmotan ikatzez beteta zeukaten labetxoa.

Apaizak igerri dio zer esan nai duan ikatz arek, eta izuturik luzatzen dio bere eskua Lauren-i, esanaz:

¿Jaungoikua ezdezu ezagutzen beraz, ene gizon errukarriya?

—Txikitan etziraten eman irakaspen (eskola) aundirik nere gurasoak. Jaungoikoaren berri gero zerbait izan nuan, baño badakigu bezelakuak lantegietan, kapetxetan, lagunartetan d'abar gaiztakeriya baizik ikasten ez degula. Oso sinistuta egon naiz —gaizki ari banaiz, otoi Jauna—, apaizak beartsuen etsayak zirala, ez zerurik, ez inpernurik, gero ezer ez dala. Apaizen errañutik alde egiteko, zioten beti gure lan-

tegiko beargiñak. Orain ezagutzen det lagun gaizto gezurtiyak atxipetu (engañau) egin nautela, ta apaizak gu lezgo arloteak kerizpetzen dituela.

Apaizak. — Jaungoikua-ri elizan zure semetxoak egindako otoi laburrak gaizkatu (salbau) zaituzte, ta Jaungoikuaren izenean nator ni zuei laguntzera. Eseri gaitezen, ta esaizkidazu astiro zure apoita (miseria) ta gora bera guziyak.

Laurian jarrita, Lauran asi zitzayon apaizari bere gertari guziyak esaten. Bitartean Gentzane etxea txukintzen zebillen.

Besua ausi zula, oparaldi luzea, aurreatutako diru apurren aitzea (gastatzea), geroztikako ezin biziya, gose t'abar, torkizun beltza, etxe alojera ordaindu bearra ta eziña, etxe nagusi zikoitzak Gentzane-ri emandako luzapen-ezekua. Guzi guziya edestu (kontatu) zion apaizari.

¡A ze lasatuba artu zuan Lauran-en biotzak!

Apaizak. — Guk aurrena bete bear degun eginkizuna, etxe nagusiari alojera ordaintzea da. Nik inguratuko dizuet diruba. Zure emazteak etxe lan arazoetan ongi dakilla esan diazu. Zu besoa sendatzeko zauden bitartean, irabaz-bide ona neuk eskuratuko diot. Egon zuek lasa. Jaungoikoaren gain dago gaurdanik zuen bizi bearraren arreta.

—¡Eskarrak, baño, eskarrak apaiz jauna!

—Jaungoikuari bakarrik eskarrak, aren esanpekoa baizik enaiz ni.

Lauran-ek. — Aditua dago, jauna. Kistar-ikastiya goguan ezarrizten sayatuko gera. ¡Ertortzea daukea berriz lagunak, apaizakin ez *piatzeko* esatera! Besoa sendatzeko «Lagunkide-Batzar» gaizto orrek ematen dizkidan txanpon apurrak, geigo ezditut nai ere!.....

Igartzen zitzayon Lauran-i bene benetan ari zala. ¿Apaiza berriz? Amator jauna, pozak lertzen zegoan Jaungoikuak eragin zion mirarizko arrantzakin.

—¡Biziya ekarri digun ogiya, beorri zor diogu, apaiz jauna!, oso kupituta esan zion Gentzaneke ere.

—Egiya da, baño beste ogi bat gogua, anima sendatzen duna eman dizuteket oraindik, oteuna, ogi deuna, santua, bear bada beñ ere artuko etzenduten Kisto-gorputza. Oraindik etzerate gai ortarako.....

Laurentzik etzekian zer dan oteun ori, eta ¿nolakua da ogi ori?, galdetu zion apaizari?

—Gerogo jakingo dek, mutiko, zelangua dan ogi ori. Emendik iru urtera. Bitartean onak izan, esangilleak, eta Jesus Jaungoikuari eskatu laguntzeko arren. ¡Agur ba orain, ta geratu zaitezte Jaungoikuaren itzalpean!

Itz abek esatekin batera, jeiki da aulkitik gure Amator apaiz jauna, maitxo baten gainean bost duroko papera utziyaz, eta berak zintzo irabazitako diru paperaren onduan lagatzen ditu Kistar-ikasbide erreza (Dotrina) ta Kistoren iduri polit bat.

—Abek animarentzat, dirua gorputzarentzat, esan zien apaizak.

(Gentzanez bildur xamar.) Nik ikasi nai nuken otoi ura jidaztitxo (liburutxo) orretan egongo ote da?

—¿Ze otoi gero?

Laurentzik. —Atzo elizan esaten zuten bezelako ura: «Emaiguzu gaur ere gure egunoroko ogiya».

—Guk ikasi genduan ura, galdetzen dio amak.

Apaizak. —Bai, bai. Otoi ori ta beste asko ere bai. Kistar-ikasbide labur orretan ikasi deizketzue. Kistar ona izateko jakin bear dan guziya ortxe daukazue.....

Eta Lauran-en eskua estutuaz, Amator apaizak onetsi (bedeinkatu) zituan ama ta bere aurrak, seaskan zegoan gotzona (aingerua) ere leundu zuan, ta atera zan geldi geldi apaiza, agurka kapela jantziyaz.

Apaiza irten zanean, ait-amak belaunetan artu zituzten beren seme alabak eta biotzak agitz (oso) samurturik zesayeten:

—¡Gure biotzeko aur laztanak; zuek sendatu gaituzue! ¡Ondo zorionekuak gera, bai, atzo illuntzetik aldegin ziguzuten eskeroz!

AMAYA

Amator apaizak inun ezdu billatu sendi (pamili) ori bezin sotill, mena ta zintzgorik Kisto-ren ikasbidetan.

Urrengo udaberriyan Laurentzi ta Kandidate ugutzan, batayatu zituzten, Lauran ta Gentzanez ortakoxe ere arretarik etzuten izan aurrak jayo ziradenian da. Gurasoak udaberri bere ortan Jauna-ren oteuna (ogi deuna, santua) artu zuten aurreneko aldiz, eta geroztik, Jaungoiko gabetanik beltz, atsege, ez beartsu bizi izandako etxe artan, alaitasuna, poza atsegiña, itxaropen eztiya ta Goiko arekiko maitetasuna etziran bako (palta) izan beñere.

Lauran asi zan berriz lanean sarri, eskuartean sartu ziran, Jaunari eskarrak ematen zizkioen azpertzake, goitz-arratsetan otoiuz luze ta gartsuak zegizkiten Jesus-en baberean itz batez bukatzeko, dealmaren atzaparretik aterata Jaungoikua-ren beso biguñetara aldatu ziran.